

2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren aurkezpena

2017-09-21

Aurkezpen orokorra.

2016an, Eushal Herriko hiru lurraldeetan VI. Inkesta soziolinguistikoa eraman da, 16 urte eta gehiagoko jendetza aztertuz. Orotara 8.200 inkesta egin dira, 4.200 EAEn, 2.000 Nafarroan eta 2.000 Iparraldean. Lagin honekin emaitzak beziki fidagarriak dira. Iparraldeko datu-bilketa SIADECO enpresak egin du, (EEP) Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin.

1. Inkestaren eremuak.

Ezaugarri teknikoak ikusi ondoren, hona orain 2016ko Inkestaren ondorioak lau ataletan:

1. herritarren hizkuntza gaitasuna:
2. hizkuntzen familia transmisioa;
3. Hizkuntzen erabilera.
4. Euskarari buruzko motibazioa.

2. Hizkuntza gaitasuna Iparraldean

Hizkuntza gaitasunaren arabera, hiru kategoria bereizten ditugu:

- Euskaldunak (hobeki euskaldun hiztunak) euskaraz mintzatzeko gai direnak.
- Euskaldun hartzaileak, euskara ulertzen dutenak, esaldi batzu egiten dituzte baina ezin dute elkarrizketa bat eraman.
- Erdaldunak, euskararik ez dakitenak.

Ikus zertan garen gaur egun:

Euskaldun hiztunak %20,5, 51.200 herritar 16 urtez gorakoak.

Euskaldun hartzaileak %9,3, 23.300 herritar.

Erdaldunak: %70,1, 175.000 herritar.

Anitz girea ala guti gara?

Ikus azken bost inkesta soziolinguistikoen emaitzak, euskaldungoaren bilakaera senditzeko. Lehena ez zen fidagarria.

1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016ko inkesten emaitzak

Jendetza 16 urte eta +	1996 212.400	2001 221.600	2006 230.200	2011 238.360	2016 249.440
Euskaldun hiztunak	56.100 % 26,5	54.600 % 24,7	51.800 %22,5	51.100 % 21,4	51.200 % 20,5
Euskaldun hartzaileak	19.800 % 9,3	26.400 % 11,9	19.800 % 8,6	21.700 % 9,1	23.300 % 9,3
Erdaldunak	136.500 % 64,2	140.600 % 63,4	158.600 % 68,9	165.560 % 69,5	174.940 % 70,1

Hiztunen bilakaera

20 urtez 16 urtez goragoko jendetza emendatu da 37.000 herritar gehiago, eta euskaradunen kopurua jautsi 5.000 gutiago, hots urtero 250 gutiago. Ulergarri da, kanpotik erdaldun anitz etortzen baita, hemengo sortzeak ez direlarik nasaiak.

Euskaldun hartzaileak 3.500 gehiago dira. Baina nolabaiteko euskaldunak %30, gero eta gutixago dira.

Erdaldunen kopurua emendatu da 38.000 hiztunez, jendetza bezalatsu.

Azken bost urte hauetan

Orain arte euskaldunen kopurua beti gutitu da inkesta batetik bestera. Azken inkesta honetan (2016) euskaldunen kopurua doi bat emendatu da (+ 100) eta euskara ulertzen dutenen kopurua askoz gehiago (+1.600).

Ondorioz nolazbaiteko euskaldunak 1.700 gehiago dira. Erdaldunak ere 9.000 gehiago dira, jendetza 11.000 herritarrez emendatu delarik, gehienak kanpotik etorriak.

3. Euskaldunen bilakaera 6 inkesteetan

Euskaldunen kopuruak eta ehunekoak, hiztun eta hartzaile

Jendetza 16 urte eta +	1991 209.000	1996 212.400	2001 221.600	2006 230.200	2011 238.400	2016 249.440
Euskaldun hiztunak	60.000 % 28,7	56.000 % 26,5	55.000 % 24,7	52.000 % 22,5	51.100 % 21,4	51.200 % 20,5
Euskaldun hartzaileak	18.000 % 8,5	20.000 % 9,3	26.000 % 11,9	20.000 % 8,6	22.000 % 9,1	23.000 % 9,3

Taula honek erakusten ditu euskaldun guzien kopuruak eta ehunekoak, hiztunak eta hartzaileak, kopuru biribilak gainean, ehunekoak pean. 1991ko inkesta zuzendua da, adin-taldeen bigarren kontaktaren bidez.

1991 eta 2016 bitartean, euskaldun hiztunen ehunekoak 6 puntuz jaitsi direlarik, zenbakietan 9.000 hiztun gutiago dira. Ikus elebidun hartzaileen sapa 2001ean.

4. Hizkuntza gaitasuna eskualdeetan

Inkesta soziolinguistikoetan hiru eskualde bereizi dira demografia kontuan hartuz

- BAM (Baiona, Angelu, Miarritze, Bokale) : 102.216 jende, 8.600 euskaldun.
- Lapurdi ken BAM : 114.548 jende, 26.400 euskaldun.
- Baxenabarre Zubero elkarrekin 32.700 jende, 16.200 euskaldun.²

Ikus taula zehatza.

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnea	Baxenabarre Zubero
Jendetza	249.441	102.216	114.548	32.676
Euskaldunak	51.197 %20,5	8.633 %8	26.374 %23	16.191 %50
Hartzaileak	23.299 %9,3	5.858 %6	12.949 %11	4.492 %14
Erdaldunak	174.944 %70,1	87.725 %86	75.225 %66	11.994 %37

Lapurdi barnea da eskualde jendetsuena 114.500 jende. Hemen da ere euskaldun kopuru handiena 26.400 Iparraldeko euskaldunen erdiak, egia erran ikastola eta eskola elebidun gehienak hemen dira.

Baxenabarre eta Zuberoa dira Euskal Herriko herrialde euskaldunenak ehunekotan %50. Baina jendetza ttipia delakotz euskaldunen kopurua 16.200ekoa da.

Nork pentsa dezake kasik 9.000 euskaldun bizi direla BAM hirigune handian?

Erdaldunak gehiengoan Lapurdin %86 hirigunean eta % 66 barnealdean. Erdaldunak gutiengoan Baxenabarre eta Zuberon %37 bana-beste.

5. Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

Emaitzak adin taldeka ezarriz, bilakaera ageri da zahar gazteen artean. Gaurregun oraino, adin talde zaharrena da euskaldunena %28. Halere adin talde gazteak gero eta euskaldunago dira, %15, %16, %17.

Ohargarri adin-taldeak gazteago eta gutiago direla, taldeak ez baitira berdinak: 15 urte, 15 urte, 15 urte, 10 urte, 9 urte eta ere demografiaren eraginez. 25-34 urtekoei konparatuz, 16-24 urteko euskaldun hiztunak eta hartzaileak emendatu dira ehunekoetan (bi aldiz + %3) ez hainbeste zenbakietan. Ondorioz erdaldunen kopurua jautsi da 6.000 hiztunetz eta 7 puntuz.

Adin-taldeak	OROTARA	65 urte +	50-64	35-49	25-34	16-24
Jendetza	249.000	68.000	61.000	61.000	33.000	26.000
Euskaldunak	51.200 %20,5	19.000 %28	13.000 %21	9.000 %15	5.000 %16	5.000 %19
Hartzaileak	23.000 %9,3	5.000 %8	5.000 %8	6.000 %10	3.500 %11	4.000 %14
Erdaldunak	175.000 %70,1	44.000 %64	43.000 %71	46.000 %76	24.000 %74	18.000 %67

Le tableau suivant montre, en pourcentage, la compétence en basque des groupes d'âge des 5 dernières enquêtes. Les résultats sociolinguistiques apparaissent en 6 colonnes. Les pourcentages des 3-15 ans sont tirés de la statistique scolaire : ceux de 1996 et 2001 viennent des 4° et 5° enquêtes, ceux de 2006 et 2011 sont des estimations d'enseignants au regard du standard B1 et celui de 2016 est déduit des examens au sujet du standard B2.

Hurrengo taulak erakusten du ehunekotan adin taldeen euskaltasuna azken 5 inkestetan zehar. Hemen daude inkesta soziolinguistikoen emaitzak 6 zutabetan. 3-15 urtekoen ehunekoak eskola estatistiketarik jalgiak da: 1996 eta 2001ekoak 4. eta 5. soziolinguistika inkestek emanak; 2006 eta 2011koak irakasleen balorazioak dira B1 estandarrari buruz; 2016koa, B2 estantarrari buruzko azterketen ondorio bat.

Euskaldunak adinaren arabera azken 5 inkestetan (%)

Adin-taldeak	65 urte +	50-64	35-49	25-34	16-24	3 - 15
1996	37	32	27	14	11	16
2001	36	30	23	12	12	16
2006	33	27	18	12	15	15
2011	31	24	15	14	18	22
2016	28	21	15	16	19	26

Taula hau goitik behera irakurtzen bada, ikusten adin-talde bakoitzak hartzen duen tokia inkesta batetik behera. Euskaldun zaharrenek gero eta toki gutiago hartzen. Jautsiera paraleloa gertatzen da 50 eta 35 urteko euskaldunekin. 25-34 urteko euskaldunek ematen dute itzulia, lehenik jauts eta gero igan. 16-24 urtekoek gero eta toki handiago hartzen dute inkesta batetik bestera %11tik %19ra. Eta itxuraz aitzinamenduak jarraituko du 3-15 urtekoen estatistikak erakusten duen bezala.


Nabarmen ikusten da adin talde zaharrenak gero eta erdaldunago direla eta adin talde gazteenak gero eta euskaldunago. Bihurgunea gertatu da 25-34 urtekoekin eta areagotu 16-24 urtekoekin. Tendentzia hau biziki itxaropentsua da.

Taula hau ezkerretik eskuinera irakurtzen badugu, euskaldungo osoaren profila agertzen da inkesta batetik bestera. 1996an adin-taldea zaharrago eta euskaldunago, gazteago eta erdaldunago. 2016an 50 urtez petikakoak gazteago eta euskaldunago dira. Itxuraz profila hau da etorkizunean areagotuko dena.

6. Euskaldunak 90 urtez Iparraldean

Hizkuntza gaitasunaren kurbak Ipar Euskal Herrian

Ikusi nahi badugu euskaldungoa zeri buruz ari den, emaitzak ahal bezain urrunagotik hartu behar ditugu. 6 inkestetako 30 adintaldeak zerrendatzen baditugu ordena kronologikoan zer agertuko da? Lehen inkestako lekuko zaharrena 1910ean sortua zen eta 6. inkestako lekuko gazteena 2000. urtean. 25 urte hauetako ikerketekin euskararen 90 urteko historia konda dezakegu.



Kurben irakurketa

Ipar Euskal Herriko euskaldungoaren kurba ilunaren bidez belaunaldien jarraipena azter dezakeku. Har ditzagun 24 urteko belaunaldiak. 1924an sortuak direnak euskaldun dira %38. Guraso bilakatu direlarik 1949an, beren "baby boom" famatuari euskara transmititu diete %27, 11 puntu galduz. Belaunaldi honen haurrak euskaldun dira %12, 1977 inguruan. Beraz 15 punturen galtzea. Hemen dago Iparraldeko euskaldungoaren zilo beltza. Aldiz belaunaldi erdaldundu honetan gazteak euskaldun dira %19 eta haurrek eskolan euskara ikasten dute %35ek ikastoletan edo ikasgela elebidunetan eta %45ek ama-eskoletan.

Laburbilduz, Iparraldean 30 adin-taldeak kontuan hartuz, ageri da ehunekotan euskaldungoa jautsi dela 1929 eta 1976 artean %36tik %11

arte, 50 urtez 25 puntu galduz (urtero puntu erdi bat bana beste). 1981ean kurba gorantz abiatu da, 15 urtez %7 irabaziz (urtero puntu erdi bat bataz beste). Hots gaur egun, 16-24 urtekoen %19arekin, 1964ko heinean gara eta gorapenerako bidean.

Baxenabarre-Zuberoko euskaldungoaren kurba urdina gain behera doa, ziztu bizian, orain gainbehera gelditua delarik

Lapurdi barnearen kurba horia Iparraldearen heinekoa da euskaldunen kopuruari esker.

BAB hirigunean euskararen kurba apal dago %10ez petik, aitzinamendu ttipi bat erakutsiz halere.

7. Euskaldunen hizkuntza trebetasuna

Hemen euskaldunen gaitasun erlatiboa lantzen dugu. Euskaldunak 3 sailetan bana daitezke, euskararen eta frantsesaren erabiltzeko duten errextasuna edo trebetasuna kontuan hartuz.

- euskal elebidunek euskaraz errazago hitz egiten dute ($E > F$) ;
- elebidun orekatuek errextasun berdina dute bi hizkuntzetan ($E = F$) ;
- erdal elebidunek frantsesez erretxago hitz egiten dute ($E < F$).

Gaitasun erlatiboaren bilakaera (%)

Iparraldea	1996	2016
Euskal elebidunak	% 34	% 21
Elebidun orekatuak	% 32	% 38
Erdal elebidunak .	% 34	% 41

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa 2016

Gaitasun erlatiboaren proportzioak ikusiz, ohargarri da duela 20 urte hiru elebitasunak berdintsu zirela : euskal elebidunak %34, elebidun orekatuak %32 eta erdal elebidunak %34. Orain euskal elebidunak 13 puntuz gutitu dira. Elebidun orekatuek 6 puntu irabazi dituzte eta frantsesez trebeago direnak %7 gehiago dira. Hemen euskararen erabilera auzian dago zeren eta mintzatzerakoan elebidunak hobekienik dakien hizkuntza erabiltzen baitu.

Gaitasun erlatiboa adinaren arabera (%)

Adin-taldeak	Iparralde	65 eta +	50 – 64	35 – 49	25 – 34	16 – 24
Euskal elebidunak	21	31	20	16	9	9
Elebidun orekatuak	38	32	40	50	40	27
Erdal elebidunak	41	37	40	34	51	64

Iturria : V. inkesta soziolinguistikoa 2011.

Zer agertzen da adin multzo bakoitzean? Orotan elebitasun orekatua da nagusi, bereziki 35-49 urtekoetan, %50. Zaharretan aurkitzen da euskarari buruzko erraztasun handiena, %31. Gero erraztasun hori laster ttipitzen da, berehala 9 punduz eta gero hiztuna gazteago eta erraztasuna ahulago da.

Alderantziz hiztunak gazteago eta frantsesa erretxago zeie, %37entzat zaharretan, %64entzat gazteenetan. 16-24 urtekoetan euskalduntasuna aitzinatu da, baina elebidun orekatuak 13 punduz gutitu dira eta erdal elebidunak 13 punduz emendatu, 25-34 urtekoei konparatuz! Kantitatean irabazi dutena ez lukete hizkuntzaren kalitatean galdu behar.

Familia bidezko transmisioa

8. Lehen hizkuntza Iparraldean

Lehen hizkuntza da haurtzaroan etxean mintzatu den hizkuntza da. Hemen edo euskara bakarrik, edo euskara frantsesarekin, edo frantsesa bakarrik. Beste hizkuntza batzu gertatzen dira baina oso guti.

Lehen hizkuntza duela 5 urte eta orain (%)

Jendetza	2011 238.360	2016 249.440
Lehen hizkuntza		
euskara bakarrik	20	16
euskara + frantsesa	5	6
frantsesa bakarrik	75	78

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa 2016.

Ohargarri da frantsesa dela nagusiki transmititzen den hizkuntza, %75 duela 5 urte eta %78 aurten. Konparatzen badugu duela bost urteko emaitzak eta oraingoak, euskara lehen hizkuntza ukan duten haurren ehunekoa 4 punduz gutitu da, %20tik %16ra, frantsesaren heina 3 puntuz goratu delarik. Bi hizkuntzak ukan dituzten haurren ehunekoa biziki apal or lehen eta orain, %5 edo %6.

9. Euskaldunen lehen hizkuntza adinaren arabera

Ikus dezagun zer bilakatzen den lehen hizkuntza. Euskaldunak hartzen baditugu, 3 kategoria bereiz ditzazkegu .

- Lehen hizkuntza euskara eta orain euskaldun, hauek dira jatorrizko euskaldunak edo euskaldun zaharrak (gero eta gazteago badira ere)
- Lehen hizkuntza frantsesa eta orain euskaldun, hauek dira euskaldun berriak.
- Lehen hizkuntzak euskara eta frantsesa eta orain elebidun, hauek dira jatorrizko elebidunak.

Hiztun guziak hartzen baditugu badira beste bi kategoria :

- Sortzez frantsesa eta orain frantsezdun hauek dira jatorrizko erdaldunak edo erdaldun zaharrak.
- Sortzez euskara eta orain frantsezdun, hauek dira erdaldun berriak.

Elebitasun motak (euskaldun, elebidun hartzaile ala erdaldun) lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaraz sortu direnak euskaldun dira %81 eta frantsesez sortu direnak frantsesdun oraino neurri handiagoan %91. Jatorrizko elebidunek dute hizkuntza egoera hauskorrena. Erdiek euskara atxiki dute, beste erdiek erdaldun edo elebidun hartzaile bilakatu dira neurri berdintsuan. Horiek hola hizkuntzak mugikor dira hein mugatu batean eta hain zuzen mugikortasuna da hizkuntza gutituen ahulezia bat.

Euskaldunen tipologia lehen hizkuntza eta adinaren arabera (%)

Euskaldunak	Orotara	65 eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Jatorrizko euskaldunak	65	81	71	60	40	24
Jatorrizko elebidunak	19	16	17	24	27	23
Euskaldun berriak	16	4	12	16	34	53

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Tipologia honek adierazten du euskararen bilakaera adinaren arabera. 65 urtez goragokoetan euskaldun zahar anitz (%81) eta euskaldunberri guti (%4). Adin-talde gazteenean 16-24 urtekoetan haustura bat ageri da. Aitzinagoko adin taldearekin konparatuz jatorrizko euskaldunek 16 puntu galdu dituzte (%24 versus %40) eta alderantziz euskaldun berriek 19 puntu irabazi (%53 versus %34). Gazteenetan erdiak baino gehiago euskaldunberri dira (%53).

Zenbakiak erakusten dute hizkuntzaren jarraipena dela gertakizun nagusia eta euskarak irabazi gehiago egiten dituela adin-talde gazteenetan. Lehen familia bidezko transmisioa nagusi zen, orain eskola bidezko transmisioa erakinkorrago.

10. Familia bidezko transmisioa jendetza osoan

Jendetza osoa hartzen badugu, erdaldunak barne, nabari da Euskal Herriko familiek frantsesa bakarrik transmititzen dutela neurri handian, gaitasunaren arabera baino gehiago: erdaldunak %70 dira eta frantsesaren transmisioa %78. Aldiz euskaldunak %20 gara eta euskararen transmisioa %22 edo bakarrik (%16) edo frantsesarekin batera (%6). Itxuraz elebidun hartzaileek frantsesa transmititzen dute.

Haurren lehen hizkuntza, Iparraldeko familietan

Haurren lehen hizkuntza	Bi burasoak euskaldun
<u>Orokorrean</u>	
Seme alaben lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 16
euskara frantsesarekin;	% 6
frantsesa bakarrik.	% 78
<u>Buraso gazteetan</u>	
2-15 urteko haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 6
euskara frantsesarekin;	% 11
frantsesa bakarrik.	% 83

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Bikote gazteetan, tendentzia hau areagotzen da. Frantses bakarraren transmisioa %83, euskararena %17, bakarrik (%6) edo frantsesarekin (%11)

11. Familia bidezko transmisioa, euskaldunetan

Hemen aztertzen dugu zein den familia bidezko transmisioa burasoen hizkuntza gaitasunaren arabera. Bikoteak bi zatitan ezartzen ditugu biak euskaldun edo bat eskualdun eta bestea erdaldun. Eta bi kasuetan konparaketa egiten da guraso guziak hartuz baina zaharrak nagusi eta bestalde guraso gazteak 3 eta 15 urteko haurrak dituztenak.

Haurren lehen hizkuntza, bi burasoak euskaldun direlarik

Haurren lehen hizkuntza :	Bi gurasoak euskaldun
<u>Orokorrean</u>	
Seme alaben lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 61
euskara frantsesarekin;	% 15
frantsesa bakarrik.	% 24
<u>Buraso gazteetan</u>	
2-15 urteko haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 66
euskara frantsesarekin;	% 20
frantsesa bakarrik.	% 14

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

1. Orokorrean edo lehenagoko bikoteetan biak euskaldun zirelarik, %76 haurren lehen hizkuntza euskara zen (%61entzat euskara bakarrik, %15entzat frantsesarekin batera) eta frantsesa bakarrik %24entzat. Beraz haurren laurden batentzat ez da izan eukararen transmisiorik, bi burasoak euskaldun izanki.

2. Bikote gazteagoetan, 3-15 urteko haurrak dituztenetan, biak euskaldun direlarik %86 haurren lehen hizkuntza euskara da (%66entzat euskara bakarrik, %20entzat frantsesarekin batera) eta frantsesa bakarrik %14entzat. Bikote gazteekin euskararen transmisioak 10 puntu irabazi ditu.

Familia transmisioa, buraso bat euskaldun

Haurren lehen hizkuntza, buraso bat euskaldun delarik, bestea ertaldun

Haurren lehen hizkuntza :	Buraso bat euskaldun, bestea erdaldun
<u>Orokorrean</u>	
Seme alaben lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 0
euskara frantsesarekin;	% 16
frantsesa bakarrik.	% 84

<u>Buraso gazteetan</u>	
2-15 urteko haurren lehen hizkuntza, euskara bakarrik	% 0
euskara frantsesarekin;	% 54
frantsesa bakarrik.	% 46

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

1. Orokorrean, buraso bat euskaldun zelarik, %16 haurren lehen hizkuntza euskara zen frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %84entzat. 0 haurrentzat euskara bakarrik. Euskararen transmisioa arrunt ahula.

Bi gurasoak erdaldun zirelarik, haur guzien lehen hizkuntza frantsesa zen bakarrik.

2. Bikote gazteagoetan, 3-15 urteko haurrak dituztenetan, buraso bat euskaldun delarik, bestea erdaldun, %54 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %46rentzat. Beraz bikote elebidun gazteekin euskararen transmisioak 38 puntu irabazi ditu.

Bi gurasoak erdaldun direlarik, lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik %99 haurrentzat eta euskara frantsesarekin ehuneko batentzat.

Hau da beraz 2016ko inkestaren berri on bat.

12. Euskararen erabilera euskaldunen artean

Hizkuntza erabilera neurtzeko, 2001ean tipologia bat finkatu zuten. Inkestek 5 mintzamolde erabili dituzte: *beti euskaraz, euskaraz erdaraz baino gehiago, euskaraz erdaraz bezainbat, euskaraz erdaraz baino gutiago, beti erdaraz*. 5 mintzamoldeak 3 taldetan banatu dira :

- Euskal mintzamoldea : euskaraz erdaraz baino gehiago edo berdin
- Noizean behineko erabilera : euskaraz gutiago edo oso gutiago.
- Erdal mintzamoldea : beti erdaraz.

Aurkezpen ofizialean, euskararen erabilera neurtzen delarik, herritar guziak kontuan hartzen dira, erdaldunak barne, dakigularik erdaldunek ezin dutela euskaraz hitz egin. Halere ikusmolde hau normala da hizkuntza politika arduradunentzat. Guretzat ondorioak oso ahulak dira euskaldun baino erdaldun gehiago baita, nolazbaiteko euskaldunak %30 dira eta erdaldunak %70.

Beste ikusmolde bat bada erabili duguna, euskaldunek zein heinetan erabiltzen duten euskara eta alorrez alor hiru edo bost mintzamoldeak agertzen dira kolore ezberdinekin. Grafikoak origina eder batzuren itxura dute baina ez dira errexki ulertzen.

Nik asmatu nuen beste aurkezpen bat, mintzamolde bakoitzari koefiziente bat emanez euskarari ematen dion lekuaren arabera: euskaraz beti 1, gehiago 0.75, berdin 0.50, gutiago 0.25 eta batere ez 0, hurrenez hurren. Hurbilketa honek ideia bat ematen digu ehuneko bakar batez, hiztunek, hitz egiterakoan, euskarari ematen dioten lekuaz. Neurri hau “euskararen heina” ditzen da.

Taula honetan erabilera osoa neurtzen da. Alabaina hiru harreman eremuen arteko sintesia egin da. 2001ean asmatu zen "Etxea-Laguna-Formala" tipologia. Azken lau inkestetan agertzen da zein neurritan erabiltzen diren hiru mintzamoldeak.

Inkestak Euskaldunak Mintzamoldeak	2001 47.300	2006 51.800	2011 51.100	2016 51.200
Euskaraz gehiago edo berdin	18.900 % 40	23.450 % 45	22.820 % 45	20.480 %40
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	23.200 % 49	21.250 % 41	23.810 % 46	25.600 %50
Beti frantsesez	5.200 % 11	7.100 % 14	4.470 % 9	5.120 %10
Euskararen heina	% 37.5	% 38.6	% 39.8	% 37.7

Euskararen erabileran ez da tendentziarik ageri ez mintzamoldeetan ez eta ere euskararen heinean. 2011ko inkestari konparatuz, 2016koak agertzen du noizean behineko euskara gehitu dela (%50) eta denbora berean euskararen heina gutitu dela %39.8tik %37.7ra jautsiz.

13. Euskararen erabilera adinaren arabera

Euskaldunen mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak	Orotara	65 eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaraz gehiago edo berdin	40	48	38	41	26	23
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	50	38	49	55	71	70
Beti frantsesez	10	14	13	4	3	7
Euskararen heina	% 36	% 37	% 34	% 36	% 32	% 29

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Adin-talde zaharretik gazteeneraino, euskara frantsesa baino gehiago edo berdin erabiltzen dutenen heina gainbehera doa eten gabe orokorki, %48tik %23ra.

Aldiz euskara frantsesa baino gutiago eta oso gutiago erabiltzen dutenen heina petik gora doa orokorki %38tik %70ra.

Beti frantsesez ari direnen heina gorabehera dabil %14tik %7era.

Bi adin-talde gazteenaren lagina ahula delako, ez da fidagarria. Halere itxuraz noizean behineko euskal mintzamoldea nagusitzen ari da, eta denbora berean erdal mintzamoldea ("beti frantsesez") goratu da 4 puntuz, euskal mintzamoldea ahulenean delarik (%23).

Ondorioz euskararen heina gain-behera doa adin talde zaharretik gazteenera %37tik %29ra.

14. Euskararen erabilera gizarte eremuetan

Hemen kontuan hartzen ditugu Ipar Euskal Herriko 51.200 euskaldunak. Hiru harreman eremu aztertu dira : familia, gizarte hurbila eta zerbitzu publikoak.

Euskaldunen mintzamolde harreman eremuetan (%)

Harreman eremuak	Euskaraz gehiago edo berdin	Euskaraz gutiago edo oso gutiago	Beti frantsesez	Euskararen heina
Etxean	45	23	32	% 39
Seme alabekin	44	13	43	% 40
Burasoekin	58	11	30	% 46
Anai-arrebeekin	59	12	28	% 52
Bikotekidearekin	40	15	45	% 34
Lagunartean	57	22	21	% 48
Auzokoekin	44	17	40	% 37
Lankideekin	51	21	28	% 44
Saltegietan	26	25	49	% 29
Udal zerbitzuetan	37	13	50	% 30
Administrazioan	10	11	80	% 9

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Familian

Euskaldunek familian dute euskara gehienik erabiltzen, bereziki anai-arreben artean (%52), haurrak gurasoekin (%46), burasoak seme-alabekin (%40) beren artean baino gehiago (%34). Dena dela, erdarazko solasaldien heina laurdena eta herenaren artekoa da.

Gizarte hurbilean

Lagunartean eta lankideekin da euskara gehienik entzuten (%48 eta %44). Gutiago auzokoen artean (%37).

Zerbitzu publikoetan

Zerbitzu publikoen eremua basamortu bat da euskararentzat, salbu auzoetako saltegiak (%23) eta herriko etxeak (%30) Herriko etxeen kasua aspaldiko hizkuntza politikaren ondorioa da : euskara zabalik, bai euskarari, hizkuntza teknikari garatzaileak, EEPren hizkuntza politika proiektua eta orain Euskal Elkargoa. Baina beste zerbitzu publikoetan, euskaldunek frantsesez hutsa erabiltzen dute maizenik, banketxeetan ala osasun zerbitzuetan (%89 eta %84). Administrazio publikoetan ez da euskararik entzuten. Konparaketa honek erakusten du onarpen publikoaren beharra euskararen garapenerako.

15, 16 Euskararen bilakaera familietan eta gizartean
--

Euskaldunen mintzamoldearen aldaketa ikusiko dugu bost inkestatan. Euskal mintzamolde, "euskaraz gehiago edo berdin" agertzen da ehunekotan azken bost inkestetan.

Euskal mintzamoldea azken 5 inkestetan zehar (%)

Euskaraz gehiago edo berdin	1996	2001	2006	2011	2016
Etxean	57	47	52	49	45
Bikotekidearekin	57	48	53	45	40
Seme alabekin	53	45	47	48	44
Anai-arrebekin	--	54	65	59	59
Lagunartean	63	60	69	64	57
Lankideekin	46	37	52	59	51
Saltegietan	36	30	32	27	26
Bankoan	33	29	26	14	12
Osasun zerbitzuetan	21	25	17	16	19
Udal zerbitzuetan	46	35	42	37	37
Administrazioan	--	8	5	2	10
<i>Bana-beste</i>	45,8	38	41,8	38,2	36,4
Euskararen heina	%33.3	%34	%33.6	%29.3	%32,3

Iturriak: azken 5 inkesta soziolinguistikoak. Aurkibidea: 1996, liburuxkaren 33. orrialdean. 2001, emaitza gordinak ken erdalunak. 2006, 2011, 2016, emaitza gordinak "euskaldunak".

Erabileraren bilakaera gainbehera doa hogei urtez 10 puntu galduz euskal mintzamoldearen bana bestekoak hartuz. Askoz gutiago, puntu baten galera, euskararen heina neurtzen badugu mintzamolde bakoitzari bere euskal koefizientea emanez.

Dena dela aktualitatean dago hizkuntza erabileraren pedagogia. Ezagutzen ditugu erabilera hobetzen dituzten faktore pertsonalak eta kolektiboak.

Lehenik herritar bakoitzaren hizkuntza gaitasuna eta erabiltzeko motibazioa. Ikusi dugu familiarren eta eskolaren eragina. Gero ingurune euskalduna elkarrekin antolatu behar duguna, hizkuntza estrategia indartsu bat eramanez. Helburua da motibazio kolektibo bat piztea. Gainera faktore juridikoa ez da gutietsi behar : hizkuntza lege eraginkor bat erdietsi arte tokiko erakundeek eman behar diote euskarari hartze duen onarpen publikoa.

17. Euskarari buruzko **motibazioa**

Euskarari buruzko motibazioa neurtzeko herritar guziak hartzen ditugu, euskaldun eta erdaldun. Azterketa lau moldetan egin daiteke:

- Iritziak, zer pentsatzen dugun euskarari buruz. Adostasuna edo dezadostasuna adierazten da iritzi zerrenda batzuri begira.
- Jarrerak zer egiteko prest garen, edo ez, euskararen alde. Jarrerak iritziak konbinatuz finkatzen dira.
- Pertzeptzioak dira euskarari buruzko sentimenduak, zer neurritan eukaldun sentitzen garen, nola baloratzen dugun hizkuntza politika...
- Prospektiba, nola ikusten dugun herriaren edo hizkuntzen etorkizuna, zer nolako gizartea nahi dugun gerorako. Gu hemen iritzietara eta prospektibara mugatzen gara.

Inkestatu guziei, euskaldun ala erdaldun, iritzi zerrenda bat proposatu zeie, galdeginez ados zirenez bai ala ez. Hona hemen irtzi batzuri buruzko erantzunak:

- *Irrati-telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz:*
ados %44, ez ados %16, berdin zait %33.
- *Nahitezkoa da haur guziek euskara ikas dezaten:*
ados %52, ez ados %24, berdin zait %18.
- *Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea:*
ados %51, ez ados %32, berdin zait %15.
- *Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan ezinez-eta euskara:*
ados %43, ez ados %33, berdin zait %23.
- *Egiazki euskaldun izateko, euskara jakin behar da:*
ados %53, ez ados %37, berdin zait %10.

Ohargarri da euskararen aldeko iritziak nagusi direla hedabideetan, irakaskuntzan, administrazioan. Baikortasun hori doi bat harrigarria da jakinez galdea herritar guzietan egin zeila, euskaldun ala erdaldun. Herritar gehienek euskara nahi dute eskolan, hedabideetan eta administrazioan ere erakundeak arrunt erdaldunak direlarik

Bi bemoi: Ingelesa nagusi eta euskara bigarren mailan da. Gainera galde polemikoa euskara beharrezkoa denetz euskaldun izaiteko %53 alde eta %37 kontra. Heren haundi batentzat euskara ez da beharrezkoa euskaldun izaiteko. Frantsesari buruz ezin da asmatu ere galde bera egitea, nola frantses izan frantsesa jakin gabe? Hikuntza gutituen ahulezia ageri da.

18. Euskarari buruzko interesa

Galdea hau egin da lekuko guziei, euskaldun ala erdaldun "Zer interes duzu euskarari begira". Erantzunak ziren "oso handia, aski handia, zertxobait, ttipia, batere ez". Frantsesez très grand et grand, moyen, faible et très faible. Erantzun baikorrak elkarrekin, ezkorrak ere bai.

Interesa euskarari buruz (%)

	2011	2016	Euskal dun	Erdal dun	BAM	Lapurdi barnea	BN Zubero
(Oso) handia	61	59	86	48	48	64	76
Zertxobait	24	23	8	28	28	22	14
Ttipia Deus ez	14	17	4	22	23	14	8

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Erantzunek zer erakusten dute ? Ez dela aitzinamendurik iragan inkesta eta oraingoaren artean (interesatuak %61 ziren, orain %59). Ondorioa hizkuntza gaitasunari lotua dela (interesatuak %86 euskaldun eta %48 erdaldun). Halere erdaldunen interesa euskarari buruz ez da gutiestekoa (nolazbait %76). Ingurune euskaldunak ere badu eraginik, eskualdea euskaldunago eta interesa handiago (BAM %48, Lapurdi ken BAM %64, Baxenabarre-Zubero %76). Interesa sentimenduzko jarrera da. Alabaina sentimentuak ere eraginkor dira.

19. Zein hizkuntza etorkizunean

Galdea zen : "Zure ustez, nola hitz egin beharko litzateke etorkizunean Iparraldean?" Hiru aukera euskaraz bakarrik, frantsesez bakarrik edo bietan. Mezua argia da. Kasik aho batez herritarrek pentsatzen dute Ipar Euskal Herrian, euskara eta frantsesa elkarrekin direla geroko hizkuntzak . % 90 eta gehiago dira iritzi berekoak. Orotara (irakur)

Zein hizkuntzatan mintzatu behar litzateke etorkizunean?

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	65 urte +	16-24
Euskaraz bakarrik	2	8	1	2	3
Euskaraz eta frantsesez	93	91	94	92	92
Frantses bakarrik	3	1	4	4	2

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Edozein aldagai hartuz iritzi nagusia da elebitasunarena, oro har %94 eta berdintsu 3 eskualdeetan, adin-talde guzietan, euskaldun ala erdaldun, bertako ala kanpoko.

Ba ote da nor edo nor hizkuntza bakarra nahi duenik Ipar Euskal Herriarentzat ? Bakar batzu. Euskara bakarrik mintzatu beharko litekeela pentsatzen dutenak dira : %8 euskaldunetan, %3 gazteenetan. Eta askoz gutiago frantses hizkuntza bakarraren alde direnak : %4 zaharrenetan eta erdaldunetan, %3 Iparralde osoa hartuz.

Bestalde ohargarri da Iparraldeko eleaniztasuna : %39k gaztelania dakite, %30ek ingelesa eta %2 inguru okzitaniara, portugesa edo arabiera.

Laburbilduz erran genezake ororen gogoan elebitasuna dela etorkizunean Ipar Euskal Herriko hizkuntza egoera. Euskaldun guztiak elebidunak dira. Frantsesdun elebkarrek luteke urrats batzu egin behar euskarari buruz. Hori gertatuko da euskalduntasuna erakargarria agertuko zeien neurrian.

20. Zein eskola etorkizunean

Galdea zen : "Haurrik bezenu eskolan, zein hizkuntzatan nahi zenuke ikas dezaten? Errantzunak lau aukera ematen zituen, oraingo egora kontuan hartuz : euskaraz frantsesa ikasgai (murgilbidea), euskaraz eta frantsesez (elebitasuna), frantsesez euskara ikasgai (bigarren mailan) edo frantsesez bakarrik. Emaitzak aurkezten ditugu aldagai ezberdinekin, 3 inkesta eta hizkuntza gaitasuna.

Ikasteko hizkuntza zure haurrentzat ? (%)

	1996	2011	2016	Euskaldun	Erdaldun
Euskaraz, frantsesa ikasgai	7	19	19	49	10
Euskaraz eta frantsesez	34	34	41	38	41
Frantsesez, euskara ikasgai	37	24	17	4	21
Frantsez bakarrik	19	20	19	5	24

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Gaurregun eskola elebidunak dauka lehentasuna (%41) bereziki erdaldunentzat (%41) eta adin-talde guzietan (%41etik %33ra). Baina hautua zabala da. Ohargarri da murgilbidearen arrakasta inkesta batetik bestera %7tik %19ra. Euskaldunek euskarazko eskola nahiago dute (%49), bigarren hautua eskola elebiduna delarik (%38).

Aldiz frantses hutsezko eskola ikastolaren heinean da orain (%19). Frantsesezko eskolari erdaldunek garrantzia ematen diote (%24), euskaldunek ez (%5). Inkesta honek erakusten du, ikaskuntza elebidunaren arrakasta handia eta frantsez hutsezko eskolaren muga, iritzi publikoan bederen.

21. Euskarari buruzko itxaropena

Inkesta honek erakutsi ditu euskararen indarguneak, euskaldunen kopurua aitzina doa, bikote gazteek gero eta gehiago familia euskaldunak sortzen dituzte, euskaldungoaren profila gaztetzen ari da, herritar guziek interesa adierazten dute euskarari buruz, geroari buruz herri osoak gizarte eta eskola elebiduna goaitatzen ditu. Baztertu ditugu ikusmolde erromantiko batzu.

Adibidez beren burua euskalduntzat daukatenak % 80 dira, egiazko euskaradunak %20 garelarik, %30 elebidun hartzaileekin. Euskaraz interesatuak direnak %82 dira, hizkuntz politikaren alde direnak %30 direlarik.

Zogaitzez euskararen ahulguneak ere nabari dira eta bereziki erabilera ahula eta arduradunen axola eskasa. Berehalako bi edo hiru helburu euskara indarberritzeko.

1. Euskal Elkargoa eraikitzen ari ginela, helburu bat finkatu dugu, haurren hiru laurdenak euskal sail batean sarraraz eta ikasleen hiru laurdenak B2 raino hel 13 urteak aitzin. Estatistikaren arabera hori egiten badugu, 2050ean hemen %30 euskal dun izanen dira eta ez bada egiten %10.

2. Baina ez da aski. Arroue inkesta famatuaren ondotik, Mikel Zalbide euskaltzain eta hizkuntzalari ezagunak zion bi baldintza behar direla bizikletaren paradigma eta arnaseguneak. Orain arteko eskola paradigma zen lehenik ikas eta gero erabil. Ez da hola gertatzen. Eskolatik urrunago eta ikasleak euskara gutiago erabiltzen du. Zer egin? Bizikletan bezala, erabiliz ikas. Orain arte gure helburua zen ikaskuntza goiztiarra, orain helburua aldatu behar dugu eta bilatu erabilera goiztiarra.

3. Hain zuzen horretarako arnaseguneak behar ditugu euskararentzat Arnaseguneak dira, ingurune batzu, naturalak edo antolatutak, non ere erretx eta atsegin baita euskara elkarrekin erabiltzea. Arnasegune batzu naturalak dira, familia, ikastola, herri euskaldunak. Bestalde arnaseguneak antolatzen ditugu, , bereziki erdal basamortuetan. Mintzalasai BABn, Baiona kantuz, glisseguna, kutura ekintzak, eta EEP edo EKEk urtero laguntzen dituzten hainbat proiektu. Erranen didazue ez dela aski. Erantzunen dizuet: "Beraz egin gehiago". Ahalaz euskara lotuz plazerrarekin.